

Miren Amuriza: «Gure hizkuntza euskara da, sustatu dezagun bere erabilera»



Miren Amurizak txikitatik bizi izan du oso gertutik bertsolaritza, izan ere, bertsozale ezagunak diren bere gurasoekin batera herriz herri ibili izan da kantuan. Hala ere, haiek ez diote inoiz bultzatu beraien pasioa jarraitzera. Aitzitik, berak erabaki zuen modu autonomoan mundu horretan hastea, bere aita Xabierren urratsei jarraituz.

30 urteko gazteak 2002an kantatu zuen lehen aldiz jendaurrean Bizkaiko Eskola Txapelketan parte hartuz, eta 2003an lortu zuen jada txapelketa horretako gazteenen mailan garaipena. Arrez geroztik, zenbatezinak dira Mirenek eszenatokietan egindako agerpenak. Bertsolaria izateaz gain, idaztea ere maite du berriztarrak. 2017an Igartza saria jaso zuen 'Paperezko txoriak' proiektuarengatik. Orain, 'Gorria' lana aurkezten ari da lurralde osoko antzokietatik, bertsolaritza eta flamenkoaren elkarriketa bat dena.

- 'Gorria' ikuskizunean murgilduta zaude orain

-Bai. Pandemia dela eta hainbat ekitaldi atzeratu egin behar izan genituen eta horretan gabiltza orain. Zorionez, saio gehienak berreskuratu egin ditugu eta oso eskertuta nago horregatik. 'Gorria' Askoa Etxebarrieta, 'La pulga', flamenko dantzaria eta ni, bertsotan, gara. Elkarren arteko elkarriketa moduko bat sortzen dugu. Azken finean bi disziplina horiek ez dira elkarren artean hain ezberdinak.

- Nola bizi duzue antzoki zein aretoetako bira pandemia garaian?

-Oso ondo. Egia esan, segurtasun neurri oso onak hartzen dira. Nabaritzen dugunez gainera, jendea kultura gosez dago. Azken finean, kultura sozializatzeko modu bat da, lagunekin elkartzeko, errealitatetik minutu batzuez ihes egiteko... Oso harrera ona izaten ari gara publikoaren aldetik.

- Txikitatik egon zara lotuta bertsolaritzaren munduarekin

-Bertsolaritzaren munduarekin baino, euskaltzaletasunarekin esango nuke. Betidanik entzun izan dut euskal musika, irakurri izan ditut euskarazko liburuak eta bertsotan aritu izan naiz. Oso gustuko dut eta nire izaeraren parte da euskalduna izatea. Ez dago besterik.

- Nola definituko zenuke bertsolaritzaren egoera gaur egunean?

-Nire ustez goranzko joeran dago bertsolaritza. Zale kopuruak izugarri egin du gora azken urteetan, baina garrantzitsuena dena da, aniztu egin dela. Hau da, bertsolaritza eremu ez-euskaldunetara heldu da azken boladan, esate baterako feminismoaren bitartez. Horrekin lotutako ekitaldi askotan bertso ikuskizunak egoten dira, bat aipatzearren.

- Zure udalerriko, Berrizko, bertso eskolako irakasle lanetan zabiltza ere.

-Bai, Lehen Hezkuntzako 2. mailatik hasi eta unibertsitatean dauden 20 urteko gazteak dauzkat ikasletzat.

- Nola moldatu dituzue klaseak pandemia egoera honetara?

-Ahal dugun moduan. Online saioak egiten saiatzen gara, nik letrak pasatzen dizkiet eta kantuan aritzen gara. 16-17 urte bitartekoak oso ohituta daude horrela funtzionatzen, eta, egia esan, haiei bururatzen zaizkie klaseak aurrera eramateko ideia gehienak.

- Eta nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna?

-Egia esan, ondo. Hitzez baliatuz bakarrik garai ezberdinetara moldatzen jakin izan dugu. Horrela jarraituko dugula ziur nago. Pandemia garaian ikusi izan da, gainera, euskaraz asko sortu dela. Beraz, positiboa naiz egoera honek denok kezkatzen gaituenaren barruan.

GALDERAK.

Irakurri arretaz eta egin (X) marka erantzun zuzenari:

1. Nola bizi izan du Miren Amurizak bertsolaritza?

☐ Oso gertutik, bere gurasoekin batera herriz herri ibili izan da kantuan.

☐ Oso gertutik bizi izan du.

☐ Oso gertutik, baina soilik bere aita Xabier izan da bertsolari.

2. Noiz irabazi zuen bere lehenengo txapela?

☐ 2003an

☐ 2002an

☐ 2017an

3. Zeren inguruan da “Gorria” lana?

☐ Bertsolaritzaren inguruko elkarrizketa bat da.

☐ Bertsolaritza eta flamenkoaren elkarrizketa bat da.

☐ Kulturara hurbiltzeko euskarazko antzerki bat da.

4. Nola deitzen da flamenko dantzaria?

- ☐ Gorria
- ☐ Miren
- ☐ La pulga

5. Zer esan nahi du “jendea kultura gosez” egoteak?

- ☐ Kulturarako apustua egitea eta hau gogoz bultzatzea.
- ☐ Jendea antzerkigintza soilik ikusteko irrikitzan dagoela.
- ☐ Aurreko biak.

6. Zer egiten ibili izan da betidanik Miren?

- ☐ Bertsolaritzan eta musika entzuten.
- ☐ Antzerkigintza, irakurtzen eta euskal musika entzuten.
- ☐ Bertsolaritzan, euskal musika entzuten eta irakurtzen.

7. Zeren bitartez iritsi da bertsolaritza eremu ez-euskaldunetara?

- ☐ Musikaren bitartez.
- ☐ Feminismoaren bitartez.
- ☐ Telebistaren eta sare sozialen bitartez.

8. Ze mailako irakasle da Miren?

- ☐ LH 2. mailatik unibertsitateko 20 urte arteko irakaslea da.
- ☐ LH 2.mailako irakaslea da, lehen 20 urtekoekin aritzen zen.
- ☐ Unibertsitateko 20 urtekoekin dago azken aldian, lehen LH 2.mailakoekin.

9. Pandemiak eragina izan du “Gorria” antzezlanean?

___ Oso ongi moldatu dira, eragin gutxi izan du.

___ Positiboa da Miren garai hauetan bertsolaritza ikuskizun asko ateratzen ari direlako.

___ Hainbat ekitaldi bertan behera geratu dira, baina gehienak aurrera doaz.